



2020-2021 IKASTURTEAREN HASIERARAKO JARDUKETA-PROTOKOLO OSAGARRIA ETA IKASTETXEETAN COVID-19 KASUAK AGERTZEN DIRENERAKO JARDUNBIDEAK

I. SARRERA

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak ikasturte hasiera presentzialaren aldeko apustu irmoa egiten du hezkuntza-maila guztietan, ikasle guztientzako hezkuntza integrala eta kalitate gorenekoa bermatzeko. Horretarako, segurtasun- eta higiene-neurri egokiak eta beharrezko baliabideak izango ditu.

Covid-19k sortutako pandemiak udan izan duen bilakaera ikusita, eta ikasturte hasieran eta ikasturtearen lehen hiruhilekoan birusak izan dezakeen eragina aurreikusiz, neurri operatibo batzuk aurreikusi ditugu, ahal den neurrian arriskuak minimizatuz; betiere pandemiaren bilakaerara egokituko diren osasun-agintarien jarraibideen esanetara, eta lehentasunezko helburutzat honako hauek hartuta: ikasturte hasiera segurtasun-berme handienarekin ahalbidetzea –bai ikasleentzat, bai irakasleentzat eta irakasle ez diren langileentzat- eta ager litezkeen kasuak hobeto kudeatzen direla bermatzea.

Horrela, pandemiaren bilakaeraren eta proposatutako neurrien eraginaren jarraipena egin ahal izango da. Bilakaera horren arabera, hurrengo hiruhilekoak planifikatu ahal izango dira.

Covid-19k eragin ditzakeen balizko egoerei erantzuteko, ikastetxeak erreferentziazko dokumentu hauek hartuko ditu kontuan. Hauen ildo orokorrek jarduteko esparru gisa balio dute, egoeraren arabera egokitu badaitezke ere:

1. Ikastetxeetan koronabirusaren aurrean jarduteko Protokolo Orokorra, Hezkuntza Sailarena.
2. 2020-2021 ikasturtea antolatzeko Ebazpenak
3. Ikastetxeko Kontingentzia Plana
4. Lan-arriskuen prebentziorako neurriak EAEko ikastetxeetan, COVID-19ren eraginpean egoteko arriskuari aurre egiteko; Hezkuntza Sailaren Lan Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuak ezarriak

Azken asteotan Euskadin COVID-19ren intzidentzia areagotu egin dela eta, eta, litekeena da jatorria familia-eremuan, jarduera osagarrietan edo hezkuntza-eremutik kanpoko mugikortasunean duten kasuak agertzea ikastetxeetan. Pertsonen arteko harremana dela eta, ordea, transmisio-probabilitatea murrizteko neurriak hartu behar dira, eta ikastetxeak eta haien ingurunea leku "seguru" bihurtu behar dira. Horretarako, hartu



beharreko segurtasun neurriak definitzen dira. Horien artean daude pertsonen arteko distantzia, maskarak erabiltzea, espazio itxiak aireztatzea eta eskuen higiena, oinarrizko neurri gisa.

Ikasturtearen hasiera honetan, ekainaren amaieran ikastetxeetara bidali zen *“Ikastetxeetan koronabirusaren aurrean jarduteko Protokolo Orokorra (2020-2021 ikasturtea)”* dokumentuan ezarritako jarraibideak betez, **Ikastetxearen Urteko Plana** osatuko dute ikastetxeek, hezkuntza antolatzeko eta planifikatzeko oinarrizko dokumentua; bai eta **Kontingentzia plana** ere, Hezkuntza Saileko Lan Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuaren jarraibideei helduz egindako prebentzio- eta higieneneurriak argi eta garbi jasotzen dituena. Plan horrek erreferentzia gisa hartuko du *“Lan-arriskuen prebentziorako neurriak EAEko ikastetxeetan, COVID-19ren eraginpean egoteko arriskuari aurre egiteko”* dokumentua.

Bestalde, jada deskribatutako prebentzio-neurri guztiez gain, infekzioari azkar eusteko jarduketan barruan sartzen dira sintomak hasten dituzten pertsonak ikastetxean egoki kudeatzea, bai eta Osasun Publikoarekiko eta Osakidetzarekiko koordinazioa ere.

Ikastetxeak parte hartu behar du kasu susmagarrien identifikazio goiztiarrean, kasu horien isolamenduan, eta kontaktu estuak identifikatuta eduki behar ditu miaketa errazteko; era berean, kontaktu estuen jarraipena eta Osasun Publikoarekiko koordinazioa lagundu behar ditu, kasuen taldekatzeak errazago identifikatzeko, eta transmisio-foku posibleak detektatzen lagundu behar du kolektibo espezifikoetan eta ikastetxeko arlo edo jarduera zehatzetan, edo ikastetxerako lekualdatzeetan.

Osasun Publikoak eta Zaintza Sareak, Erakunde Sanitario Integratuekin (ESI) batera, ikastetxeekin koordinatuko dituzte jarduketak, ahalik eta lasterren kasu susmagarrien eta baieztatutako kasuen kudeaketa errazteko, kontaktuek behar dituzten jardueretan.

Prebentzio-neurrien edo detekzio goiztiarreko neurrien modulazioa, prebentzioko edo baheketako prozedura gehigarri berriei kudea daiteke. Neurri horiek irizpide teknikoan, egoera epidemiologiko orokorraren edo eremu zehatz, udalerrri edo beste talde batzuen egoeraren arabera zehaztuko dira. Geografia- eta mugikortasun-eremua baloratu behar da Osasun Publikoak zenbait ikastetxetan hautemandako premien eta ikasle nahiz irakasle kolektibo jakin batzuegana irits daitezkeen premien aurrean jarduteko orduan.

Ekintza hauek guztiek eskatzen dute zentroek komunikazio arina eta jarraitua izatea Osasun Publikoko agintariekin eta zaintza epidemiologikoko sarearekin, eta, horretarako, Hezkuntza-sistema - COVID jarraipen batzorde tekniko bat sortuko da lurralde bakoitzean, bai eta sailarteko Hezkuntza-COVID Aholku Batzordea ere Euskadin.



Gerta daitezkeen egoera desberdinen aurrean, kudeaketa-tresnak antolatu eta erabili behar dira azkar erantzuteko, kasu berrien aurrean erantzuteko, arriskuak identifikatzeko eta egon daitezkeen agerraldiak prebenitzeko.

Eskola-eremuan kasu berriak identifikatzeak duen eraginaz jakitun, eta taldeak isolatuta edukitzeak edo ikastetxeren batean gela bat edo batzuk aldi baterako ixteak duen eraginaz ere jabetuta, gardentasuna eta hezkuntza-komunitateari jakinaraztea izango da jarraitu beharreko jardueraren oinarri garrantzitsu bat.

Egungo egoera epidemiologikoaren ondorioz, Osasun Publikoak aurretiko protokoloekin alderatuta alderdi prebentibo gehiago gomendatu ditu, baina ikasturtean zehar ekintzak modulatu daitezke, aipatutako Aholku Batzorde horrek egingo duen etengabeko ebaluazioaren arabera.

II. XEDEA

Jarduera Protokolo Osagarri honen helburua da [*Jkastetxeetan koronabirusaren aurrean jarduteko Protokolo Orokorra \(2020-2021 ikasturtea\)*](#) eta [*Prebentzio neurriak \(2020-2021 ikasturtea\)*](#) dokumentuetan ezarritakoez gain, neurri osagarriak planteatzea, 2020-2021 ikasturtearen hasieran, kontuan hartuta pandemiak berriki izan duen egoera eta bilakaera.

Bestalde, ikastetxeetan kasuak agertuz gero jarduteko gidalerro batzuk ere ezartzen dira, beharrezkoak diren prebentzio- eta kontrol-jarraibide eta -neurrietatik abiatuta. Hauek, Osasun Publikoak ezartzen duenaren arabera alda daitezke, intzidentzia areagotzeari, eskola barruko agerraldiak agertzeari edo ikastetxearen eremuan komunitate-transmisioa areagotzeari dagokienez.

III. PREBENTZIO-NEURRI OSAGARRI OROKORRAK

Aipatutako protokoloetan jasotako neurriez gain, eta oro har, pandemiaren egungo bilakaeran eta ikasturtea laster hasiko denez, neurri osagarri hauek ezarri dira:

1. Kontaktuak mugatzea:

- a. Ahaleginak egin behar dira ikasleen ahalik eta bizikidetzatalde egonkor gehien ezar daitezkeen (hasiera batean Haur Hezkuntzarako eta Lehen Hezkuntzako 2. mailara arte aurreikusi dira), ikasgelako espazioaren arabera, tutorearekin batera, elkarren artean sozializatu eta jolastu ahal



izateko, eta beste talde batzuekin elkarreraginean aritu gabe, **harremanak mugatzeko eta, kasuren bat gertatuz gero, kontaktuak azkar eta errazago arakatzeko.**

- b. Beharrezkoa da, halaber, haur-eskoletan ere bizikidetza-talde egonkorrak ezartzea, urruntzea ezinezkoa baita horietan, eta oinarrizko prebentzio-neurria talde txikia eta egonkorra baita.

2. Prebentzio pertsonaleko neurriak:

- a. Egunero, higienerari eta portaerari buruzko prebentzio-neurriak gogorarazteko saioak egingo dira, gela, ikastetxe eta adin bakoitzera egokituta.
- b. Ikasle eta langile guztiei hartuko zaie gorputz-tenperatura, lanaldia hasi aurretik. Banakako erantzukizunari helduz, ikastetxera joan aurretik etxean bertan **tenperatura hartzea** gomendatzen da, eta ez dira joango sukarra izan (>37º) edo COVID-19rekin bateragarriak diren sintomak dituzten ikasleak, irakasleak eta bestelako profesionalak.
- c. Ez dira ikastetxera joango COVID-19 diagnostikoagatik isolatuta dauden ikasle edo irakasleak edo etxean berrogeialdian daudenak, sintomak dituen pertsonaren batekin edo COVID-19 diagnostikatuta duenen batekin kontaktu estua izan dutelako.

Era berean, zentroek neurri hori gauzatzeko termometroak izango dituzte. Tenperatura hartzea lanaldiaren hasieran egitea gomendatzen da (eta beharrezkoa den guztietan), betiere jende pilaketak saihestuz eta gutxienez 1,5 metroko pertsonen arteko distantziari eusten zaiola ziurtatuz.

d. **Maskara** erabiltzea:

- Arau orokor gisa, ikastetxeko langile eta ikasle guztiek nahitaez erabili beharko dute espazio guztietan eta une oro.
- Irakasleek maskara erabili behar dute beti, baita bizikidetza-talde egonkorretan ere.
- Haur Hezkuntzan, 6 urtera arte, maskara ez da nahitaezkoa izango, nahiz eta, posible den kasuetan, adin horretatik behera ere erabiltzea gomendatzen den.
- Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailetan ezarritako bizikidetza-talde egonkorretan, maskara kendu ahal izango da aire zabaleko jardueretan, hauek ikasleen arteko kontakturik gabe egiten badira.
- Eskola-garraio kolektiboan derrigorrezkoa izango da 6 urtetik gorako ikasle guztientzat, baina, ahal izanez gero, adin horretatik



behera ere erabiltzea gomendatzen da. Autobusen barruan ezin izango da maskara kentzea dakarren jarduerarik egin (jatea edo edatea).

- Maskara nahitaez erabili beharko da, nahiz eta ikasleak eserita egon eta 1,5 metroko pertsonen arteko distantzia gorde.
- Mugimendua, kantua edo antzekoak eskatzen dituzten irakaskuntza-jardueren kasuan, maskara erabili eta pertsonen arteko distantzia mantendu beharko da.

Ikasturte hasieran hartutako neurri hauek, aldatu egin daitezke pandemiaren bilakaeraren arabera, eta aipatutako protokoloetan jasotako egoeretara itzul daitezke.

- e. Zentroko espazio komunetan pertsonak elkartzea saihestu; edukiera mugatuko da, bilerak 10 lagunetik gorako pertsona elkartzerik gabe egingo dira, eta pertsonen arteko distantzia mantenduz eta maskara jantzita. Arrisku-eremuak berrikusiko dira, hala nola kafe-makina, edo birusa transmititzen lagun dezaketen langileen arteko beste interakzio batzuk.
- f. Hezkuntza Sistema-COVID Jarraipen Batzorde Teknikoak, Komunikazioari eta Koordinazioari buruzko VIII. puntuan definituak, eskolen barruko kasuen eta agerraldien intzidentziaren ebaluazioa egingo du, asteroko bilerekin, eta prebentzioa sustatzeko gomendioak ezarriko ditu.

IV. KUDEAKETA IKASTETXEETAN

1. Ikastetxe bakoitzean, zuzendaritza-taldeen gain, erreferentziatzko arduradun bat izendatuko da COVID-19rekin lotutako gaietarako. Kasuen kudeaketan, Osasun Publikoa eta ikastetxearen arteko koordinazioa ikastetxeko zuzendaritzarekin eta erreferentziatzko arduradunarekin egingo da.
2. Halaber, gomendatzen da elkarrizketa arina ezartzea ikastetxearen eta hezkuntza-administrazioaren artean, Hezkuntzako lurralde-ordezkararen eta Ikastetxe eta Plangintzaren zuzendariaren bidez, **Hezkuntza Saileko Jarraipen Batzorde Orokorren** koordinatzaile gisa, [Ikastetxeetan koronabirusaren aurrean jarduteko Protokolo Orokorra \(2020-2021 ikasturtea\)](#) dokumentuan ezarrita dagoen eran, hainbat egoeraren berri emateko, zalantzak argitzeko eta jarduerak koordinatzeko.
3. Kasuren bat gertatuz gero, **kontaktuen miaketa azkar eta errazagoa egin ahal izateko**, eta era horretan azterketa eta jarduketa errazteko, ikastetxeari



gomendatzen zaio modu antolatuan eta erraz eskuratzeko moduan honako informazio hau jasotzea:

- Bizikidetzatalde egonkor bakoitzeko ikasleen zerrenda.
- Gela, tailer edo laborategi bakoitzeko ikasleen zerrenda, bakoitzaren kokalekua (non esertzen diren), egiten diren jardueren arriskuaren balorazioa (kontaktu edo hurbiltasun handiagoa duten tailer edo praktiketan parte hartzea), eta hauen harremanetarako telefono zenbakiak (mugikorra), azkar jardun ahal izateko, bai eta kasu bat agertzean kontaktu estuak lortzea errazten duen informazio guztia ere.
- Jantokiko txandako ikasleen zerrenda, eta ahal bada, kokalekua ezagutzea (non esertzen diren), ikasleak beti leku berean kokatzeko ahalegina eginez.
- Autobus berean garraiatuak izan diren ikasleen zerrenda, eta zein eserlekutan jartzen diren.
- Eskolaz kanpoko jarduerak antolatzen badira, taldeetan dauden ikasleen zerrenda

Informazio hori kudeatzeko, eta kasu bat agertzen denean kontaktuak ahalik eta lasterren aztertzeke, zentroko zuzendaritzaren, laneko arriskuen prebentziorako koordinatzailearen, autobusetako arduradunen eta jantokiko arduradunen arteko koordinazioa behar da, jasotako informazioa datu-base batean edukita.

Ikastetxeko langileek uneoro zaindu beharko dute identitatearen eta susmagarriak edo baieztatuak diren kasuen isilpeko tratamendua.

4. **Erakunde Sanitario Integratu (ESI)** bakoitzak erreferentziazko herrietako ikastetxeen laguntza-beharrak koordinatuko ditu. **Beraz, ikastetxe bakoitzak erreferentziazko ESI bat izango du**, eta Osasun Publikoak koordinatutako harremana izango du harekin. Ikastetxe bakoitzari harremanetarako telefono-zenbaki bat esleituko zaio.

Ikastetxe batean kasuak baieztatzen badira, ikastetxeko zuzendaritza zaintza-sarearekin harremanetan jarriko da. Aipatutako ESIko koordinatzaile batek ezarriko du sare hori, eta hark adieraziko dio zer jarraibide jarraitu behar dituen.

V. KASUEN KUDEAKETA

1. **Ez dute ikastetxera joan behar COVID-19rekin bateragarriak diren sintomak dituzten pertsonak**, ikasle, irakasle zein bestelako langileak izan, ez eta COVID-19ren diagnostikoa jaso ondoren isolatuta daudenek edo etxeko berrogeialdian



daudenek ere, COVID-19rekin bateragarriak diren sintomak dituen pertsona batekin harreman estua izateagatik.

2. Ikastetxean sintomatologia agertuz gero:

IKASTETXEAN COVID-19rekin bateragarria den sintomatologia duten pertsona guztiek aurrez aurreikusitako jarduketa-protokolo bat jarraituko dute:

- a. Horretarako prestatutako isolamendu-gela batera joango dira (maskara jarrita). Gela honek higiene eta aireztapen neurri egokiak beteko ditu, eta kasu susmagarri batekin erabiltzen den bakoitzean desinfektatuko da. IKASTETXEKO ZUZENDARITZARI jakinaraziko zaio, eta hark Prebentzio Zerbitzuko ARLO MEDIKOARI JAKINARAZIKO dio.
- b. Ikaslea bada, berarekin doan pertsonak neurriak gordeko ditu: distantzia eta maskara.
- c. Ikastetxeko zuzendaritza edo ikastetxean Covid 19ren prebentzioaren ardura duen pertsona familiarekin harremanetan jarriko da, etxera eramateko.
- d. Familia bere osasun zentroarekin harremanetan jarriko da, haren jarraibideak betetzeko.
- e. Hezkuntza Sailaren menpeko langilea bada, isolamenduan jarriko da (maskara jantzita) eta etxera joango da IKASTETXEKO ZUZENDARITZARI jakinarazi ondoren; zuzendaritzak Lan Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuko ARLO MEDIKOARI JAKINARAZIKO dio.
- f. Beste enpresa bateko edo Administrazio Orokorreko langilea bada, ikastetxeko zuzendaritzari, dagokion Prebentzio Zerbitzuari eta Hezkuntza Sailekoari jakinaraziko die, eta haren jarraibideak beteko dira.
- g. Eragindako pertsona **kasu susmagarritzat** joko da, eta **etxean isolatuta egon** beharko du proba diagnostikoen emaitzak izan arte, Osasun Sailaren [COVID-19ren Zaintza Epidemiologikoko Protokoloan](#) adierazitakoaren arabera.
- h. **Kasuaren emaitza diagnostikoa lortu arte, ez da kontaktu estuei buruzko ekintzarik adieraziko, eta irakaskuntza-jarduerak normaltasunez jarraituko du, higiene-neurriak zorroztez.** Kasua berresten bada, **kontaktuen azterketa** egingo da hezkuntza-ingurunean eta hezkuntza-ingurunetik kanpo, kontaktuak ezarrita dagoenaren arabera **identifikatuz, sailkatuz** eta haien **jarraipena** eginez.

3. Kasuak baieztatuz gero:

Kasu positibo gisa detektatutako ikaslearen guraso edo tutoreek berehala jakinaraziko diote ikastetxeko zuzendaritzari, erreferentziako ESI-arekin harremanetan jar dadin, eta azken hau lurraldeko Osasun Publikoko Zuzendariordetzako erreferentearekin harremanetan jarriko da.



Kasuen kudeaketan, Osasun Publikoa ikastetxearekin koordinatuko da, ikastetxeko zuzendaritzarekin eta COVID-19rekin lotutako alderdien erreferentziako arduradunarekin. Ikastetxe batean kasuak baieztatzen badira, ikastetxeko Zuzendaritza erreferentziako ESI-ko koordinatzailearekin harremanetan jarriko da.

Kasua baieztatzen bada, **kontaktuen azterketa** egingo da hezkuntza-ingurunean eta handik kanpo, **kontaktuak identifikatuz, sailkatuz** eta haien **jarraipena eginez**, Osasun Publikoko Zuzendaritzak ezarritakoaren arabera.

Ikastetxean **harreman estuak** identifikatzeko, honako alderdi hauek hartuko dira kontuan:

- A) Baieztatutako kasua **bizikidetzatalde egonkor** batekoa bada, harreman estuzat hartuko dira **taldeko kide diren pertsona guztiak**.
- B) Konfirmatutako kasua **ez bada bizikidetzatalde egonkor** batekoa, ikastetxeko harreman estuak identifikatuko dira, ikastetxeko Zuzendaritzarekin eta Prebentzio Zerbitzuko koordinatzailearekin lankidetzan.

Zentroan lan egiten duten langileen esposizioaren balorazioa kasu bakoitzaren arriskuaren ebaluazio espezifikoaren arabera egingo da, SARS-CoV-2-ekiko esposizioaren aurrean Laneko Arriskuen Prebentzio-zerbitzuetarako Jarduketa-prozeduran jasotakoaren arabera; beraz, arrisku-kontaktuzat hartzeak prebentzio-neurrien jarraipen zuzena eta babes-elementuen erabilera baloratuko ditu (distantzia fisikoaren mantentzea eta maskara erabiltzea).

Osasun Publikoko Zerbitzuak, Lan Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuarekin batera, balioetsiko du ea irakasleak eta ikastetxeko langileak kasu baieztatuaren kontaktu estuzat hartu behar diren, hartutako prebentzio-neurrien eta egindako jardueren egokitasunean eta jarraipenean oinarrituta.

Osasun-agintariek jarraipen **aktiboa** egingo dute estuzat identifikatutako kontaktuen artean, eta etxean egon beharko dute berrogeialdian, Osasun Sailaren [COVID-19ren Zaintza Epidemiologikoko Protokoloan](#) zehazten denaren arabera. PCR probak egitea barne hartuko da, Osasun Publikoko agintariek ezarritako protokoloetan jasotakoaren arabera.

Gurasoei informazio-oharrak prestatuko zaizkie, eta familiei **informazio** egokia emango zaie **berrogeialdiko, eskuen higieneko eta arnas higieneko** neurriak betetzeko, bai eta COVID-19rekin bateragarriak diren sintomak garaiz identifikatzeko seinaleak ere.



Kontuan hartu beharreko aldia aurreko paragrafoan aipatutako Protokoloan jasotakoa izango da.

Kontaktuak aztertu eta estuzat jotzen direnentzako berrogeialdiko neurriak ezarri ondoren, irakaskuntza-jarduerek normaltasunez jarraituko dute, arreta-neurriak zorrotz eta zaintza pasiboa eginez.

Beste kasuren bat balego beste gela batean, ikastetxean, Osasun Publikoko jarraibideak bete. Kasuak erlazionatuta egon daitezke, edo ez, eta detektatutako kasuen kontaktu estuen azterketaren arabera zehaztuko dira neurriak.

Eskola-aldian, COVID-19 kasuak detektatuko dira ikastetxe batera joaten diren haurren artean. Horrek ez du esan nahi, nahitaez, kutsatzea ikastetxean gertatu denik. Horretarako, eskolaz kanpoko ingurunea sartuko da analisisian, ikastetxeko kontaktu estuak ikertzeko beharraz gain.

4. Kasu bat baino gehiago agertuz gero

Agerraldizat hartuko da lotura epidemiologiko bat ezarri den infekzio aktiboko 3 kasu edo gehiagoren multzokatzea.

Ikastetxeetan COVID-19 kasuen **agerpen-egoerak** askotarikoak izan daitezke. Agertzen diren kasuak bizikidetza-talde egonkor edo ikasgela bakar batean identifika daitezke, talde horretan edo gelan transmisiorik izan gabe. Kasu desberdinen arteko lotura dagoenean, agerraldizat har daiteke.

Era berean, agerraldi bat antzeman daiteke kasu batetik abiatuta bizikidetza egonkorreko taldean edo ikasgelan transmisioa sortu zen talde batean; egoera hori beste talde batzuetan ere gerta daiteke, haien artean loturarik egon gabe eta gertaera independenteak izanik. Azkenik, ikastetxean bertan elkarbizitza-taldeen edo gelen arteko transmisio-agerraldiak gerta daitezke.

Hiru agertoki posible har daitezke kontuan:

- a. **Agerraldi kontrolatuak edo noizbehinkako kasuak.** Transmisio-kateak ondo definituta badaude.

Egoera hau talde bakar batean gerta daiteke, edo, aldi berean, independenteak diren bizikidetza-talde egonkor batzuetan. Horietako bakoitzerako kontrol-jarduera espezifikoak adieraziko dira, ohiko kontrol-neurriak ezarriz: kasuen isolamendua eta talde edo gela independente bakoitzeko kontaktuen identifikazioa eta berrogeialdia.



- b. **Agerraldi konplexuak edo noizbehinkako komunitate-transmisioa.** Transmisio-kateak erraz identifikatu ezin badira edo adar bat baino gehiago agertzen badira, kasu bat baino gehiagoren sorrerarekin.

Egoera hori hainbat talde edo ikasgelatan hautemandako kasuen ondorio da, talde batetik bestera nolabaiteko transmisio-maila dutenak, birusa ikastetxean sartzeko modua edozein izanik ere. Kasu horretan, kasuen arteko lotura aztertuko da, eta neurri gehigarriak hartzea baloratuko da, hala nola berrogeialdia gorde behar duen taldea/taldeak handitzea, gelak edo lerroak ixtea.

- c. **Kontrolik gabeko transmisio komunitarioa.** Ikastetxean kontrolatu gabeko transmisioa gertatzen dela uste bada, kasu kopuru altua agertuta.

Osasun Publikoko Zerbitzuak arrisku-ebaluazio bat egingo du, transmisio-prozesuak non gertatzen diren aztertuz, neurriak eskalatzeko beharra aztertzeke, eta, azken buruan, zentroko eremu bat (adibidez, jantokia) edo ikastetxe osoa aldi baterako ixtea baloratuko du.

Egoera epidemiologiko horiek bizikidetzatalde egonkor batean edo gehiagotan gerta daitezke, lerro batekoak edo gehiagotakoak. Agerraldi horiek kontrolatzeko neurriak, aurrez definitutako agerraldi motak zehaztu duen arrisku-mailaren arabera ezarriko dira.

VI. ZERBITZU OSAGARRIAK

Eskola garraioa:

COVID-19ren aurkako prebentzio-neurrien inguruan Indarrean dagoen araudia aplikatuko da, bai eta *“Lan-arriskuen prebentziorako neurriak EAEko ikastetxeetan, COVID-19ren eraginpean egoteko arriskuari aurre egiteko”* dokumentuan jasotakoak ere.

Era berean, gomendagarria da ikasleek autobusean eserleku jakinak edukitzea, autobus bakoitzean garraiatzen diren hurren zerranda izatea, eta autobusean zein lekutan esertzen diren jakitea.

Ikasle guztiek eta gainerako langileek maskara erabiliko dute uneoro. 6 urtetik beherako ikasleentzat ez da derrigorrezkoa erabiltzea, baina, ahal denean, adin horretatik behera erabiltzea ere gomendatzen da.



Jantokiak. Ikasturte hasieran, ikasle kalteberak dituzten ikastetxeetako jantoki-zerbitzua lehenetsiko da, ikastetxeak jantoki-zerbitzuaren eskaintzari buruz hartutako erabakiaren arabera, eta betiere *“Lan-arriskuen prebentziorako neurriak EAEko ikastetxeetan, COVID-19ren eraginpean egoteko arriskuari aurre egiteko* dokumentuan ezarritako neurriak errespetatuz.

VII. ESKOLAZ KANPOKO JARDUERAK

Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetan 2020-2021 ikasturtea antolatzeko Hezkuntzako sailburuordearen ebazpenen arabera, eta Bigarren Hezkuntzari dagokionean ere jasotzen denez, 1.1.c) atalean honako hau adierazten dute:

“Aurreikusitako jarduerak bakarrik osasun-agintariak proposatutako neurriak bermatzen badira programatuko dira, ikasturtean suerta daitezkeen edozein agertokitan ere, eta gomendatzen da hartuko diren erabakiei arreta berezia jartzea, beti familien partaidetza eta lankidetzak lagun hartuta.

Helburuak, inplikaturako ikasleak eta irakasleak, eta egiteko data, ordua eta tokia zehaztuko dira. Erregistro hori OOG, Ordezkaritza Organo Gorenaren eta Ikuskaritzaren eskueran egongo da ikastetxean”.

Hala ere, ikasturte-hasiera honetan, ikastetxeentzako errefortzu-programekin (Bidelaguna) zerikusia dutenak baino ez dira antolatuko, bertara atxikitako ikastetxeetan, eta ohiko irakaskuntza-jarduerarako proposatutako erreferentzia guztiak errespetatuz antolatu beharko dira.

Beraz, ikasturtearen hasieran ikastetxean eskolaz kanpoko jarduerarik **ez** antolatzea gomendatzen da, harik eta ikasleak ikastetxera itzultzearen bilakaera, eskola-jardueraren kudeaketa eta garapena eta pandemiaren beraren bilakaera ikusi arte, kasuen trazabilitate hobea bermatzeko.

Unea iristen denean, zer baldintzatan antola daitezkeen jakinaraziko da; nolahi ere, irizpide orokor gisa, ikastetxeko ohiko bizikidetzak-taldee eusteari eta kontaktu fisikorik ez dakarten jarduerari lotuta egongo dira.

Egoeraren bilakaera aztertu ondoren, neurri berriak hartuko dira eskolaz kanpoko jarduerari dagokienez.

VIII. KOMUNIKAZIOA ETA KOORDINAZIOA

Kontuan hartu eta indartu [Ikastetxeetan koronabirusaren aurrean jarduteko Protokolo Orokorra \(2020-2021 ikasturtea\)](#) eta [Lan-arriskuen prebentziorako neurriak EAEko](#)



ikastetxeetan, COVID-19ren eraginpean egoteko arriskuari aurre egiteko dokumentuetan ezarritako jarraibideak.

Kasu bat gertatzen denean edo agerraldi bat identifikatzen den egoeretan ezarri beharreko jarduketan berri emango zaio hezkuntza-komunitateari, bai eta neurri berriak ezartzeko aukeraren berri ere, baldintza jakin batzuk gertatzen badira.

Halaber, gomendatzen da ikastetxeak komunikazio-kanal arin eta eraginkorra ezarrita izatea familiekin. Eranskin gisa, familientzako dekalogo bat gehitu da, ikasturte berri honen hasieran komunikaziorako baliagarri izan daitekeena.

2020-2021 ikasturtearen hasieran planteatutako neurri hauek guztiak pandemiaren bilakaeraren eta osasun-agintarietako emandako jarraibideen mende daude.

Osasun Publikoko arduradunekin eta zaintza epidemiologikoko sarearekin komunikazio arina eta jarraitua izateko, eta egoeraren bilakaeraren, balorazioaren eta aurreikusitako neurriak hartzearen edo ekintzen modulazioaren jarraipena egin ahal izateko, **Hezkuntza Sistema-COVID Jarraipenerako Batzorde Tekniko** bat egongo da, Osasun eta Hezkuntza Saileko ordezkariak osatua. (Hezkuntza Sailaren aldetik, Ikastetxe eta Plangintzako zuzendaria eta lurralde bakoitzeko lurralde-ordezkaria). Kasuak eta kasuistika aztertu eta neurri bereziak hartuko ditu, astero bilduz.

IX. IKASTURTE HASIERA

Ikasturte-hasiera ahalik eta segurtasun-berme handienekin garatu ahal izateko, eta, aldi berean, Osasun Publikoarekin koordinazio eta kudeaketa ona eraman ahal izateko, pandemiaren transmisioaren egungo egoeran, irailean ikasleak ikastetxetara era mailakatuan sartzea onetsi da.

Hori horrela, 2020ko ekainaren 12ko ikasturteko egutegiaren Ebazpenean jasota dagoenez, ikastetxe publikoetako irakasle guztiak irailaren 1ean sartuko dira ikastetxean, 2020-2021 ikasturtearen hasierarekin lotutako jarduerak egiteko.

Ikastetxe guztietako eskola-jarduerak 2020ko irailaren 7tik aurrera hasiko dira Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. eta 2. mailetan, ikastetxe bakoitzak bere ikasturteko egutegian jasotzen duen eran.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. mailatik aurrerako eta Batxilergoko ikasleen kasuan, irailaren 15ean hasiko dira ikasleak ikastetxeetan sartzen eta eskola-jarduerak garatzen.



Lanbide Heziketako Ikastetxe Entegratuen eta Ikastetxe Espezifikoek kasuan, heziketa-zikloen eta lanbide-arloen antolamenduaren ezaugarriak kontuan hartuta, ikasgeletan, tailerretan, laborategietan eta enpresetako prestakuntzan, ikasturte-hasiera mailaka egingo da, mailen arteko astebeteko tartearekin:

- Irailak 14: Goi-mailako heziketa-zikloak, 2. maila
- Irailak 16: Goi-mailako heziketa-zikloak, 1. maila
- Irailak 21: Erdi-mailako heziketa zikloak, 2.maila
- Irailak 23: Erdi-mailako heziketa zikloak, 1.maila
- Irailak 28: Oinarrizko Lanbide Heziketa, 2.maila *
- Irailak 30: Oinarrizko Lanbide Heziketa, 1.maila *

* Oinarrizko Lanbide Heziketaren kasuan, ikastetxe independente eta ez-integratu batean gauzatzen bada, ikasleak irailaren 14an eta 16an hasiko dira lanean, hurrenez hurren.



1 ERANSKINA. FAMILIENTZAKO DEKALOGOA

Ikasturte hasiera honetan ezinbestekoa izango da ikastetxeetan segurtasuna bermatzeko zenbait neurri errespetatzea.

Dekalogo honetan, ikastetxeari hertsiki ez dagozkion arren, zentroarekin lotuta dauden eremuak ere nabarmentzen dira; beraz, eremu horien gaineko kontrola, hala nola informazioa transmititzea beharrezko denean, birusaren kutsatzea kontrolatzeko bermea izango da, eta, hala badagokio, foku posibleak detektatzeko trazabilitate egokia lortzea.

Dekalogo hau, lehenatasunez, adin txikiko seme-alabak dituzten familiei edo ikastetxeetan ezarritako jarraibideen transmisio egokia mugatzen duen desgaitasunen bat duten ikasleen familiei zuzenduta dago.

Jakina, ikasturte hasieran bilerak egingo dira familiekin, ikastetxe bakoitzak bere kontingentzia-planean jaso dituen neurrien berri emateko, Osasun Sailak jakinarazitako irizpideak betetzen direla bermatuz. Hala ere, gorago aipatu bezala, ikastetxetik kanpoko espazioak, jarduerak eta zirkunstantziak azpimarratu nahi dira.

1. Hurrek ezin dute ikastetxera joan sukarra (>37°C) badute. Horrek esan nahi du familiek ikastetxera iritsi aurretik tenperatura hartu behar dietela.
2. Pertsona bakarra joango da ikastetxera ikaslearen lagun, eskola-egunaren hasieran edo amaieran, eta, ahal den neurrian, pertsona bera izango da beti.
3. Laguntzaile hauek ikastetxean sartu ahal izateko, aldeztatik hitzordua jarri beharko dute edo horretarako baimena izan beharko dute.
4. Laguntzaileak ezin izango dira inguruan geratu, taldekatzeak eratu.
5. Haur guztiek izan beharko dute beren maskara, eskola-egunetan erabiltzeko higiene-baldintzak bermatuko dituena.
6. Familiak lankidetzan arituko dira ikastetxeak oinarrizko higiene-ohiturak babesteko eta errazteko helarazitako jarraibideekin, hala nola:
 - ikastetxeko seinaleak errespetatzea
 - maskara erabiltzea
 - eskuak garbitzea
 - aretoak aireztatzea
 - bizikidetzat-talde egonkorreko kide izatea
7. Ikasle batek sintomak baditu ikastetxean, familiari jakinaraziko zaio; beraz, kontakturako beharrezkotzat jotzen diren telefono zenbakiak eman beharko dira (bat baino gehiago ematea gomendatzen da).



8. Ikasleak sintomak baditu etxean, familiak tutorea jakinaren gainean edukiko du eta aldaketa esanguratsuak jakinaraziko dizkio.
9. Familiak, ikasleak ikastetxetik kanpo egiten dituen eskolaz kanpoko jardueri buruzko informazioa emango dio ikastetxeari, trazabilitate-arrazoiengatik eskatzen bazaio.
10. Ikasleen gurasoek edo tutoreek eremu emozionalari buruz egoki deritzoten informazio guztia helaraziko diote beren semearen edo alabaren tutoreari, eremu horretan COVID-19 testuinguruari lotutako gabezia/zailtasunen bat aurreikusten denean.

Gogoraraztekoa da, beharrezkoa dela COVID-19ren bilakaeraren inguruan informatuta izatea iturri ofizial eguneratuen bidez, bai sintomatologiari dagokionez, bai transmisioa prebenitzeko moduari dagokionez.

Informazio hori etengabe eguneratuta dago Osasun Sailaren webgunean:

<https://www.euskadi.eus/covid-19-koronavirus-berria> (euskaraz)

<https://www.euskadi.eus/nuevo-coronavirus-covid-19/> (gaztelaniaz)

Azkenik, eta aldi horretan familiei laguntzeko, Hezkuntza Sailak "COVID-19, familientzako orientabideak" izeneko dokumentu bat argitaratu du, etxean osasun fisikoa eta emozionala zaintzeko gomendio erraz batzuekin.